

Kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko udal egitura berria

Nueva organización para mejorar la eficiencia en la gestión



AURKIBIDEA | ÍNDICE

ETORKIZUNeko BEASAIN ERAIKITZEN

- 2 → Aldaketa, eraginkortasunean hobetzeko
- Udal egitura berria
- 2015-2019 Legealdirako Kudeaketa Plana egitura berria txertatuta

BEASAIN, HERRI BIZIA

- 4 → Igartza Musika beka
- Zezili Deuna
- Charla: Prevenir la enfermedad del Alzheimer
- Odolki dastaketa
- Fruitu eta barazki lehiaketa
- Kontra-dantza ikastaroa
- Hitzaldia: Diabetesa

BEASAINDARRAK PROTAGONISTA

- 6 → Oinezkoentzako gunek indartuz

ABENDUAN BEASAINEN...

GUTUNA

Aitor Aldasoro

Beasaingo alkatea

ALDAKETA, ERAGINKORTASUNEAN HOBETZEKO

Udalak garai berrietara eta herritarren eskakizunetara egokitu behar du. Horretarako, beste hainbat udalerritan egin duten moduan, udal egitura berria txertatu dugu egungo errealitateari eta egungo beharrei erantzun diezaien.

Egitura berriak, eraginkortasunean eta gardentasunean hobetzeko balioko digu, baina ez hori bakarrik, datozen urteetan aurrera atera nahi ditugun egitasmo eta proiektuak antolatzen eta gauzatzen ere lagunduko digu. Lan egiteko egitura berriaz gain, egitura berri horretara egokitutako lan tresna ere eratu dugu: **2015-2019 Legealdirako Kudeaketa Plana**.

Zer garen eta zer izan nahi dugun ikuspegiari erantzuten dion kudeaketa planak eta bereziki, egitura berriak, hobeak izaten eta etorkizuneko Beasain herria eraikitzen lagunduko digute. Baliabideak eraginkortasunez kudeatuz gero, erantzun azkarrago eta egokiagoak emateko gai izango gara udal gisa; eta horrek, jakina, eragin zuzena izango du herritarrengan.

Un Ayuntamiento más eficiente

El Ayuntamiento acaba de implantar una nueva organización municipal para mejorar la eficiencia en la gestión. Esta nueva metodología de trabajo nos va permitir adaptarnos mejor a la realidad actual y a las nuevas necesidades del municipio y de los y las beasaindarras. Para ello, hemos elaborado, en base a la nueva estructura organizativa, un **Plan de Gestión para la legislatura 2015-2019**. Este Plan responde a la visión de lo que somos y lo que queremos llegar a ser, para lograr mejorar día a día y crear las condiciones necesarias para construir un Beasain para el futuro.




UDAL EGITURA BERRIA NUEVA ESTRUCTURA MUNICIPAL

El nuevo esquema organizativo del Ayuntamiento de Beasain responde a criterios de eficiencia y transparencia y ha sido organizado bajo 3 grandes áreas:

Organización, Ciudadanía y Territorio.

El principal objetivo es que la nueva estructura sea mucho más ágil, moderna, transparente y, sobre todo, eficaz y eficiente para responder a las verdaderas necesidades del municipio y garantizar y ofrecer unos servicios municipales de mayor calidad a la ciudadanía.



Lan metodologia

Egitura berriarekin, **arreta zerbitzua ez da aldatuko, baina bai lan egiteko modua**. Lehen, Udala, 10 batzordetan zegoen antolatua eta bilerak maiztasun desberdinarekin egiten ziren. Orain aldiz, antolakuntza berriaren arabera, **Udala 3 batzordetan egituratuko da hiru baitira udalerrriaren elementuak: lurraldea, biztanleria eta antolakuntza**.

Udalerrriaren 3 elementu nagusi horiek oinarri hartuta sortu dira batzordeak eta hileroko maiztasuna izango dute. Batzordetan osoko bilkuran erabaki behar diren gaiak eztabaidatzeaz gain, **hileko kudeaketa txostena** aurkeztuko da. Txostenak, besteak beste, aurrekontuetan jasotako **ekintzen exekuzio egoera** eta **kontratazioen inguruko informazioa** bilduko ditu.

Azkenik, 4 zinegotzi eta 4 teknikoz osatutako Koordinazio taldea eratu da, Legealdi Planaren jarraipena egin, batzorde informatiboen zeregina bultzatu eta udal departamendu ezberdinen arteko koordinazioa errazteko.

2015-2019 Legealdirako Kudeaketa Plana egitura berrian xertatuta

Etorkizuneko erronkei aurre egin eta proiektu ezberdinak burutzeko lan tresna garatu da: 2015-2019 Legealdi Plana. Honek, estrategikotzat jotzen diren helburuak eta aurrera eramane nahi diren ekintzak jasotzen ditu, aipatu 3 arlotan banatuta.

Plan de Gestión para la Legislatura 2015-2019 en la nueva estructura

Una herramienta para la gestión con actuaciones concretas para mejorar Beasain y la calidad de vida de las y los beasaindarras y hacer frente a los retos futuros

ANTOLAKUNTZA ORGANIZACIÓN

Helburu estrategiko horiek betetzeko aurrera eramango diren **ekintza garrantzitsuenak** herritarrei eskainitako zerbitzuaren hobekuntzarekin lotura izango dute: iGunean zerbitzu gehiago eskaintzea, **gardentasunaren ataria** garatzea, **parte-hartze prozesuak** zehaztu eta gauzatzea, **zerbitzu elektronikoen eskaintza** zabaltea edota udalaren **webgunea** berritzea herritarrekin harremanetan jartzeko eta informazioa jasotzeko bide eraginkor eta erabilerraza izan dadin.

El Ayuntamiento al servicio de la ciudadanía...

1. **Mejorar y adaptar la estructura organizativa**
2. **Renovar la administración electrónica**
3. **Fomentar el buen gobierno, la buena administración y la ética en el ejercicio público**

Heziketarako balioak dituen herri kohesionatu, parte hartzaile eta dinamikoa...

1. **Herritarren ongizatea bermatzea gizartean esku hartzeko egitasmoak indartuz**
2. **Herritarren arteko bizikidetza sustatzea**
3. **Herritarren parte hartze aktiboa garatzea**
4. **Udal ekipamenduak hobetzea**
5. **Udalerrian euskararen erabilera sendotzea**
6. **Herritarren segurtasuna bermatzea**
7. **Barne merkataritza eta tokiko turismoa sustatzea**

HERRITARRAK CIUDADANÍA

Entre las **acciones concretas** que se llevarán a cabo en esta área destacan: impulsar la práctica deportiva en diferentes edades, crear una **consultoría deportiva**, trabajar la **memoria histórica**, crear **pistas de skate y paddle**, dar pasos en el proyecto **Beasain Lagunkoia**, fortalecer la **actividad cultural** y la creatividad, completar el **Plan de Igualdad**, poner en valor y dar a conocer el **patrimonio**, realizar un **Plan de Movilidad**, identificar los **puntos negros** del municipio o desarrollar un plan para **dinamizar el mercado** de los baserritarras.

LURRALDEA TERRITORIO

Helburu estrategiko horien baitan aurreikusten diren ekintzarik garrantzitsuenak lotura izango dute gure auzoekin eta erdigunearekin, ingurumenarekin eta garapen jasangarriarekin; besteak beste, **elkargune eremuak** sortzea, **Bonberia eraikina** zaharberitzea, auzoetako azpiegiturak hobetzea, **trafiko eta aparkaleku arazo** edota beharrei erantzuteko **neurri ezberdinak** hartzea, **ingurubide berdeak** sustatzea, **Dolarea parkea** txukuntzea, kale argiztapenean **energia eraginkortasuna** hobetzea, **erreak eta ibaietan esku hartzea** edota **bizikletaren erabilera** sustatzeko plana gazteekin elkarlanean garatzea.

Un pueblo más cómodo, más amable, más sostenible y adaptado a la ciudadanía...

1. **Fomentar el desarrollo social y económico**
2. **Ofrecer un municipio accesible y cuidado, con las infraestructuras y los abastecimientos necesarios**
3. **Ordenar el territorio municipal**
4. **Gestionar el patrimonio municipal**
5. **Crear un municipio más sostenible**

AZAROAN BEASAINEN



Irabazleak: Cesareo Muñoz eta Yana Kucherova.

Igartza Musika Beka:
Maila goreneko
nazioarteko musikarien
emanaldia Beasainen
Igartza Musika Bekari esker

"Los beasaindarras han tenido y tendrán el privilegio de poder disfrutar cada año de las actuaciones de los estudiantes internacionales de música de Musikene gracias a la Beca Igartza que ofrece el Ayuntamiento"

Azaroaren 5ean jatorri ezberdinetako ikasleek musika emanaldiak eskaini zituzten Igartzako Jauregian Udalak eskaintzen dituen Igartza Beken baitan. Urtero bi musika beka eskainiko ditu, eta trukean, Musikeneko nazioarteko ikasleek emanaldiak eskainiko dituzte Beasainen. Aurtengo irabazleak, Cesareo Muñoz eta Yana Kucherova izan dira eta sari-ematearen ondoren, lunchaz gozatu ahal izan zuten guztiek Errotan. Dударik gabe, elkar ezagutzeko aukera bikaina izan zen hura!



Musika Eskola: Zezilia Deunaren omenezko emanaldia



Pablo Martinez Lageren hitzaldia Igartzako jauregian
"Prevenir la enfermedad del Alzheimer"



XXXII. Odolki dastaketa
lehiaketa eguna



Errezil sagar eta fruitu eta
barazki lehiaketak

Kontra-dantza ikastaroa, dantzan.com elkartearen eskutik

Dantza tradizionala Beasainen egonkortzeko helburuarekin, Udalak dantzan.com elkartearekin hitzarmena sinatu zuen martxoan. Haren ondotik, eta dantza irakasleak trebatzeko, lehen formazio saioa burutu da. Iparraldeko bi dantza maisuk eskaini zuten azaroaren 19an kontra-dantzen inguruko ikastaroa.



Hitzaldia: Diabetesa eta ariketa
fisikoaren onurak



OINEZKOENTZAKO GUNEAK INDARTUZ



Kale Nagusia eta Nafarroa etorbidea oinezko bihurtzeko froga martxan da. Zer diote beasaindarrek?

“La conexión peatonal provisional entre Kale Nagusia y Nafarroa etorbidea ya está en marcha. Esta prueba tiene una doble finalidad: impulsar el comercio local y ofrecer a la población una gran zona peatonal. Tras analizar los pros y los contras de la idea, se decidirá peatonalizar o no definitivamente la zona.”

Beasain herria ez da peatonalizaziorik gabe ulertzen. Duela zenbait urte Kale Nagusia oinezko egin zen, inork imaginatuko al luke orain ibilgailuz josita?

Orduko Merkataritza Sustatzeko Planak oinezkoentzako espazio berriak aurreikusten zituen eta haren ondotik etorri zen Kale Nagusia peatonalizatzeko proiektua. Plan berriak ere, merkataritza sustatzeko oinezko gune berriak sortzea proposatzen du.

Hori dela eta, Kale Nagusia eta Nafarroa etorbidea lotzen dituen eremua oinezko bihurtzeko froga egitea erabaki du Udalak.

Horretarako, eremua egokitzeaz gain, herriarren beharrak aintzak hartuta sarrera-irteerak antolatu eta bakoitzaren beharren arabera ordutegiak ezarri dira.

Frogak 6-8 hilabete iraungo ditu eta emaitzak aztertu ondoren erabakiko da eremua behin betiko oinezko bihurtuko den ala ez.

Zer iruditzen zaizu frogak? *¿Qué opinión tienes sobre la prueba puesta en marcha?*

Kale Nagusiko esperientzia adibidetzat hartuta, atzera egingo al zenuke? *¿Volverías a abrir al tráfico rodado Kale Nagusia?*

GARIONA OKINDEGIA



Jendea haserre dago. Merkataria naizen aldetik, bezeroak galtzeko arriskua ikusten dut. Lehen bertan aparka zitekeen eta orain aldiz herriari buelta osoa eman behar zaio. Kexa bat jarri genuen eta

orain sinadurak biltzen ari gara. Dagoeneko 800 sinadura inguru bildu ditugu.

MIRENTXU LIBURU DENDA

Ez zait ondo iruditzen aparkaleku gehiegi galtzen direlako. Guztiak geltoki inguruan pilotzen dira eta inguru hau hutsik geratzen da. Gugana, gainera, inguruko herrietako jende asko etortzen da, eta beraz, jendeak non aparkatu ez badu, guretzat oztopo bat da.





Kale Nagusia antes de la peatonalización

Kale Nagusia oinezko utziko banu ere, Arana Kalea beste modu batera oineztatuko nuke. Aparkalekuak gertuago behar ditugu eta nire ustetan paseatzeko nahikoa leku dago herri honetan. Zamalanak egiteko ere ez da batere eroso oinezkoekin arazoak sortzen direlako.

ESCALA UNO CIENTO DEKORAZIOA



En general me parece muy bien. Tiene muchos aspectos positivos: no tenemos coches en frente de nuestro establecimiento, sale más gente a la calle, se puede pasear tranquilamente porque las calles son más seguras y se para más gente a mirar los escaparates. En definitiva, hay mucha más vida y ambiente en calle. Además considero un lujo tener una calle peatonal de casi un kilómetro de largo; creo que es positivo para Beasain y sin duda no volvería a abrir al tráfico Kale Nagusia.

El único aspecto negativo los problemas para la carga y descarga; como comerciante pediría mayor flexibilidad para facilitar dichas labores.

XABIER IRAETA HERRITARRA

Oso ondo iruditzen zait kaleak oineztatzea eta are hobeto aurretik frogatu egitea. Oinezko guneekin kaleek bizia hartzen dute eta pertsonentzako guneak bihurtzen dira. Autoak kaleetatik kenduta espaloiak zabaldu, segurtasuna hobetu eta kutsadura jaisteaz lortzen da, beraz, herritarron bizi kalitatea hobetzen

dela esango nuke. Era berean, gune horiek erakarpen puntu bilakatzen dira jendea lasai eta gustura ibili daitekeelako kalean eta horrek merkataritzaren dinamismo eta sustapena dakar. Hori dela eta, ez nuke inola ere Kale Nagusia aldatuko.


Beharbada eragozpen bakarra gertuko puntu batetik bestera joan nahi duenak herriari buelta osoa eman behar izatea aipatuko nuke. Dena den jasan erraza dela iruditzen zait. Ohiturak aldatzea kosta egiten da hasieran, baina denborarekin guztiok moldatzen gara.

JULKI GOZO DENDA

Estoy a favor de que las calles sean peatonales, pero no de manera tan estricta como Kale Nagusia; deberían ser semipeatonales por la mañana y peatonales por la tarde.

Reconozco que la gente pasea más y mira los escaparates, pero algunos establecimientos, que no tenemos escaparates, necesitamos que los clientes puedan entrar en coche para cargar sus compras. Las personas mayores son las que más consumen en el comercio local, ya que las personas jóvenes tienden a irse a grandes superficies, y son ellos quienes más necesitan poder cargar sus compras en coche porque tienen problemas de movilidad.

Por último, creo que debería haber una normativa que regule la velocidad de las bicicletas en las zonas peatonales y se debería revisar el tiempo de estacionamiento en carga y descarga de algunos camiones.





KZ gunea IKASTAROAK

Urruneko formakuntza *Formación a distancia*

Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Instagram	2016.12.12	aste 1 1 semana
Linkedin	2016.12.12	2 aste 2 semanas
Twitter	2016.12.12	aste 1 1 semana
Erosketa eta salmenta seguruak internet bidez <i>Compras y ventas seguras por Internet</i>	2016.12.12	2 aste 2 semanas
Facebook	2016.12.19	aste 1 1 semana
Dropbox	2016.12.19	aste 1 1 semana
Pinterest	2016.12.19	aste 1 1 semana

Ikastaro presentzialak *Cursos presenciales*

Ikastaroa Curso	Hasiera Inicio	Iraupena Duración
Erosketa eta salmenta seguruak internet bidez (Euskara) <i>Compras y ventas seguras por Internet (Euskara)</i>	2016.12.01 2016.12.01	2h (09.00-11.00) 2h (09.00-11.00)
Oinarrizko Internet <i>Internet básico</i>	2016.12.12	20h (11.00-13.00)
Sare sozialak <i>Redes Sociales</i> Facebook	2016.12.12	8h (16.00-18.00)
Doako Antiburusa <i>Antivirus gratuito</i>	2016.12.13	2h (18.00-20.00)
Google Apps (euskara)	2016.12.14	16h (18.00-20.00)
LibreOffice	2016.12.19	20h (16.00-18.00)
Gmail	2016.12.28	4h (11.00-13.00)

Informazio gehiagorako: www.kzgunea.eus

ONDO IBILI, ONDO IZAN IRTEERAK

Abenduak 1, 15, 22 | ostegunak
10:00 | San Martingo estatuan

MENDI IRTEERAK | SALIDAS MONTAÑERAS

AIZKORRI MENDIZALE ELKARTEA

Abenduak 4 | igandea
8:00 | Beasain- Esparru- Beasain
Abenduak 24 | larunbata
8:00 | Aizkorri
Abenduak 31 | larunbata
8:00 | Txindoki

ARRASTAKA MENDI TALDEA

Abenduak 17, 18 | larunbata, igandea
San Millan

Gabon
zoriontsuak eta
Urte Berri On



Lege gordailua SS 403-2016